



IRIZPENA

AZKOITIKO HERRIAN GAZTEEK ETXEBIZITZAK ALOKATZEKO DIRU-LAGUNTZAK EMATEA ARAUTUKO DITUEN ORDENANTZA ERREGULATZAILEAREN ALDAKETA.

AURREKARIAK

Azkoitiko udalbatza plenoak, 2015eko otsailaren 10ean egindako bilkuran, ondoko ebazpen hauek hartu zituen, besteak beste:

LEHENA.- *Azkoitiko herrian gazteek etxebizitzak alokatzeko diru-laguntzak ematea arautuko dituzten oinarrietako Ordenantza erregulatzaileraren hasieraz onartzea, diktamen honen eranskinean jasotzen den testuaren arabera.*

BIGARRENA.- *Ordenantza hau eta dagokion espedientea informazio publikoan jartzea hogeita hamar laneguneko epean, Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean argitaratzen den biharamunetik hasita, herritarrek aztertu eta erreklamazio edo iradokizunak aurkez ahal ditzaten.*

HIRUGARRENA.- *Erabaki hauek Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean, Udaletxeko iragarki taulan eta Azkoitiko Udalaren web orrian argitaratzea.*

Ordenantzari zegokion espedientea informazio publikoa jarri ondoren, inolako erreklamaziorik ez zen aurkeztu. Hots, 2015eko apirilaren 8an, Ordenantzaren testua Gipuzkoako Aldizkari Ofizialaren 64. zk.an argitaratu zen, eta indarrean jarraitzen du orain arte.

Hala ere, bi urte hauetan hainbat arazo eta gai berri azaldu dira, eta beharrezkotzat jotzen da haiei erantzuna ematea, hain zuzen:

- Bizikidetzaren gutxienerako sarrerak finkatzea, batez ere iruzur fiskalari aurre egiteko.
- Udalaren ikuskaritza-ahalmenak, eta korrelatiboki, onuradunen betebeharrak arlo horretan, zehaztea.
- Dirulaguntza aldatzeko edo galtzeko kasuak arautzea.

Arrazoi hauek kontutan hartuta, *Azkoitiko herrian gazteek etxebizitzak alokatzeko diru-laguntzak ematea arautuko dituen Ordenantza aldatzea proposatu dute udal zerbitzuek.*

TXOSTENAK

Udal Idazkariak, proposamenren aldeko txostena azaldu du, honakoaren arabera:



AZKOITIKO UDALA
AYUNTAMIENTO DE AZKOITIA

1.- Aldaketaren xedea

Azkoitiko herrian gazteek etxebizitzak alokatzeko diru-laguntzak ematea arautuko dituen Ordenantzaren helburuak ondoko hauek dira:

- Bereziki pertsona gazteei laguntzea, heuren emantzipazio bidean eta helduen mundura sartzeko prozesuan.
- Modu orokorrean, Azkoitiko herrian alokairuko etxebizitza eskuratzea sustatzea.
- Arkitektura-oztopoak ezabatzeko indarrean dagoen araudiak ezarritako irisgarritasun-baldintzak betetzen dituzten alokairuko etxebizitzak eskuratzea sustatzea.

Une honetan proposatu diren aldaketen bitartez, udalari dagozkion ikuskaritza-ahalmenak eta, aldi berean, dirulaguntzen onuradunen betebeharrak, zehaztu egin dira. Halaber, dirulaguntzak aldatu edo galtzeko arrazoiak tipifikatu dira, jatorrizko testua osatuz.

Toki Araubidearen Oinarriak arautzen dituen apirilaren 2ko 7/1985 Legearen 25. artikulua 2. atalari idazkera berria eman zion Arrazionalizazio llegeak, eta gai-zerrenda bat osatu zuen, non udalek berariazko eskumenak egikaritzeko bait zituzten. Gai hauen artean, 25.2 artikulua a) atalak honako hauek arautzen ditu, hirigintza arloan:

- Ondare historikoaren babesa eta kudeaketa
- Babes publikoko etxebizitzaren sustapena eta kudeaketa, beti ere finantza-iraunkortasunaren irizpideak kontutan hartuko direlarik.
- Eraikinen kontserbazioa eta birgaitzea.
-

Halaber, Euskadiko Toki Erakundeei buruzko 2/2016 Legearen 17. artikulua udalen eskumen propioen zerrenda xedatzen du. Artikulu honen 7. atalak etxebizitzaren plangintza, programazioa eta kudeaketa udalen eskumen propioetat hartzen ditu, eta 36.ak, gazteria-politikak planifikatzea, antolatzea eta kudeatzea ere.

Azkenik, Hirigintza arloko legeria sektorialak, udalen eskumen hauek garatu eta arautzen ditu. Era honetan, udalek protagonismo berezi bat dute, hirigintzako antolamenduaren bermea eta babesari dagozkion arloetan ez ezik, etxebizitza eta inguru degradatuak berritzeko, eraikinen baldintzak egiaztatzeko, eta etxebizitza eskubidea bermatzeko ekimenetan ere.

Udalak dituen eskumenak egikaritzeko garaian, hainbat ahalmen ditu. Dirulaguntzen kasuan, dirulaguntzak arautzen dituen azaroaren 17ko 38/2003 Legeak, ondoko hau xedatzen du bere 8.3 artikuluan: **3. La gestión de las subvenciones a que se refiere esta ley se realizará de acuerdo con los siguientes principios:**

- **a) Publicidad, transparencia, concurrencia, objetividad, igualdad y no discriminación.**
- **b) Eficacia en el cumplimiento de los objetivos fijados por la Administración otorgante.**
- **c) Eficiencia en la asignación y utilización de los recursos públicos.**

Bestaldetik, aipatu Legearen 14. artikulua, dirulaguntzen onuradunen betebeharrak arautzerakoan, ondoko hau xedatzen du, beste batzuen



AZKOITIKO UDALA
AYUNTAMIENTO DE AZKOITIA

artean:....."c) Someterse a las actuaciones de comprobación, a efectuar por el órgano concedente o la entidad colaboradora, en su caso, así como cualesquiera otras de comprobación y control financiero que puedan realizar los órganos de control competentes, tanto nacionales como comunitarios, aportando cuanta información le sea requerida en el ejercicio de las actuaciones anteriores."

Xedapen hauek kontutan hartuta, Azkoitiko udalak eskumen osoa du udalerrin honetan *alokairu soziala bultzatzeko laguntzen programa* arautzen duen Ordenantzaren aldaketa onartzeko, dagokion izapidea burutu ondoren.

2.- Ordenantzaren aldaketa izapidetzea

Toki Araubidearen Oinarriak arautzen dituen apirilaren 2ko 7/1985 Legearen 49. artikuluan xedaturikoa ikusirik, Ordenantzaren aldaketaren izapidetzeak ondoko pausoak izango ditu:

- Hasierako onespena, Plenoari dagokiona, aipatu Legearen 22.2.d) artikuluan araututakoaren arabera.
- Informazio publikoa eta interesatuen entzunaldiko epea, 30 lanegunekoa, erreklamazio eta iradokizunak aurkez daitezzen.
- Aurkezturiko alegazioak ebatzi eta Ordenantzaren aldaketaren behin betiko testua onartzea, udalbatza plenoari dagokiona.
- Informazio publikoko epea iragan eta inolako erreklamaziorik ez balitz aurkeztuko, Ordenantzaren aldaketa behin betikotzat onartua emango da.

3.- Organo eskuduna

Goian aipatu den moduan, Toki Araubidearen Oinarriak arautzen dituen apirilaren 2ko 7/1985 Legearen 22.2.d) artikuluan xedatutakoaren arabera, ordenantzen onespena udalbatza plenoaren eskumena da.

Azkoitiko Udaleko Ogasuna, Barne Antolakuntza, Pertsonala, Kontratazioa, Sustapen Ekonomikoa eta Merkataritzako Batzorde Informatiboak irizpen hau aztertu zuen 2017ko otsailaren 9an egindako bilkuran, eta otsailaren 16an egindako bilkuran irizpenaren bozketa gauzatu zen, bozketaren emaitza ondorengoa izan zelarik:

Aldeko botoak: Javier Zubizarreta, Ana Azkoitia, Miguel Angel Bastida, Sonia Vazquez, Imanol Arrizabalaga, Gaizka Larrañaga, Jose Joakin Etxaniz eta Janire Igoa

Aurreko guztia kontuan izanda, organo eskuduna den Udalbatza Plenoari honako irizpen hau onartzea proposatu dio Ogasuna, Barne Antolakuntza, Pertsonala, Kontratazioa, Sustapen Ekonomikoa eta Merkataritzako Batzorde Informatiboak, aho batez:

IRIZPENA

LEHENA.- Azkoitiko herrian gazteek etxebizitzak alokatzeko diru-laguntzak ematea arautuko dituen Ordenantza erregulatzaileren aldaketa hasieraz onartzea, ondoko testuaren arabera:



1) Ordenantzaren 4. artikulua e) atalak ondoko aldaketa jasoko du:

Gaur egungo testua

- e) Bizikidetzaren Unitateko diru-sarreraren muga, honakoa baino txikiagoa izango da:
- — 27.000,00 euro gordin urtean eskatzaile bakarra bada.
 - — 34.000,00 euro gordin urtean bi eskatzaile edo gehiago badira.

Aldaketa

- e) Bizikidetzaren Unitateko diru-sarreraren mugak, ondoko hauek izango dira:
- Urteko dirusarreraren gordinak gutxienez 3.000 €.koak izango dira.
 - Onuradun bakarren baldin bada, urteko dirusarreraren gordinak ezingo dute gainditi 27.000 €.tako kopurua.
 - Bi onuradun edo gehiago izanez gero, urteko dirusarreraren gordinak ezingo dute gainditi 34.000 €.tako kopurua.

2) Ordenantzaren 6. artikulua ondoko aldaketa jasoko du:

Gaur egungo testua:

- a) Etxebizitzari dagokienez:
1. Babes publikoko erregimenen batean sartutako etxebizitzak, bai ekimen publikokoak, bai pribatukoak.
 2. Berrakurak.
 3. Logelen alokairuak (logela eskubidea).
 4. Etxebizitza gisa erabilitako lokalak.
 5. Bizigune programaren barruan dauden alokairu etxebizitzak.
- b) Baztertuta geldituko dira hilean 550,00 €ko zenbatekoa (eranskinak barne) gainditzen duten alokairuko etxebizitzak, oinarri hauek kaleratu baino lehenagoko alokairu kontratuen kasuan; baita hilean 500,00 €koa (eranskinak barne) gainditzen dutenak ere, oinarri hauek kaleratu ondoren sinatzen diren kontratuen kasuan.
- c) Ez da onartuko urte bete baino iraupen txikiagoa duen kontraturik.

Aldaketa:

Ez dira diru-laguntzaren onuradun izango honako kasu hauetan sartzen diren eskaerak:

- a) Etxebizitzari dagokienez:
6. Babes publikoko erregimenen batean sartutako etxebizitzak, bai ekimen publikokoak, bai pribatukoak.
 7. Berrakurak.



AZKOITIKO UDALA
AYUNTAMIENTO DE AZKOITIA

8. Logelen alokairuak (logela eskubidea).
 9. Etxebizitza gisa erabilitako lokalak.
 10. Bizigune programaren barruan dauden alokairu etxebizitzak.
- b) Baztertuta geldituko dira hilean 500,00 €ko zenbatekoa (eranskinak barne) gainditzen duten alokairuko etxebizitzak.
- c) Ez da onartuko urte bete baino iraupen txikiagoa duen kontraturik.

3) Ordenantzaren 7. artikulua ondoko aldaketa jasoko du:

Gau egungo testua

7. artikulua. Onuradunaren betebeharrak.

Diru-laguntzetarako Lege Orokorraren 14. artikuluan jasoak datozenaz gain, onuradunak honakoak ere bete beharko ditu:

- Ematearen oinarrian den helburu zehatza betetzeko erabiltzea diru-laguntza.
- Eskatzen zaien informazio osagarri guztia aurkeztu beharko diote Azkoitiko Udalari.
- Diru-laguntza ematerakoan kontutan izandako edozein gorabehera –hala objektiboa, nola subjektiboa– aldatzen bada, horren berri eman.
- Oinarri hauetako 4. artikuluko c) apartatuan erroldatzeari buruz ezarritako baldintzak betetzeko egin beharreko gestioak egitea.

Aldaketa:

7. artikulua. Onuradunaren betebeharrak.

Diru-laguntzetarako Lege Orokorraren 14. artikuluan jasoak datozenaz gain, onuradunak honakoak ere bete beharko ditu:

- a) Ematearen oinarrian den helburu zehatza betetzeko erabiltzea diru-laguntza.
- b) Eskatzen zaien informazio osagarri guztia aurkeztu beharko diote Azkoitiko Udalari.
- c) Diru-laguntza ematerakoan kontutan izandako edozein gorabehera –hala objektiboa, nola subjektiboa– aldatzen bada, horren berri eman.
- d) Oinarri hauetako 4. artikuluko c) apartatuan erroldatzeari buruz ezarritako baldintzak betetzeko egin beharreko gestioak egitea.**
- e) Ordenantza honetan xedatzen diren baldintzak betetzen direla egiaztatzeko udalak sustaturiko jarduketa ikuskatzailea onartzea, dagokion etxean sartzearena barne.**



4) Ordenantzaren 16. artikuluan organo erabakitzailea Alkate-Lehendkaria dela zehaztuko da

5) Ordenantzaren 17. artikulua ondorengo aldaketa jasoko du:

Gaur egungo testua

17. artikulua.

Azkoitiko Udalak egokitzat jotako agiriak aurkez ditzatela eskatu ahal izango die onuradunei.

Udal zerbitzuak etxebizitzara joan ahal izango dira ikuskatzera, edota udalaren datu baseak kontsultatu ahal izango dituzte diru-laguntzaren oinarrietan adierazitako baldintzak betetzen direla egiaztatzeko helburu bakarrarekin.

Azkoitiko Udalak, bere fiskalizazio-eginkizunak betetzeko, informaziorik eskatuz gero, diru-laguntzen onuradunek eman egin beharko diote.

Aldaketa:

17. artikulua.

Dirulaguntzen onuradunek Azkoitiko udalak eskaturiko dokumentazioa aurkeztu beharko dute, beti ere Ordenantza honetan xedaturiko baldintzak betetzen direla egiaztatzeko helburuarekin.

Halaber, udalak beharrezkoak diren ikuskaritza-eginbideak garatu ahal izango ditu, bai udalean bertan dagoen informazioa aztertzeko, baita hirugarrenek (beste administrazioek, konpainia hornitzaileek, posta zerbitzuek, etab.) eduki dezaketen informazioa eskatzeko, beti ere Ordenantza honetan araututakoa betetzen dela egiaztatzeko helburu soilarekin.

Halaber, udaleko zerbitzuek, etxebizitza ikuskatu ahal izango dute, oinarrietan adierazitako baldintzak betetzen direla egiaztatzeko helburu bakarrarekin.

Dirulaguntzaren onuradunak udalaren jarduketa ikuskatzailea oztopatuko balu, laguntza jasotzeko eskubidea galduko du.

6) Ordenantzak xedapen berri hauek izango ditu:

VI. DIRU-LAGUNTZAREN ALDAKETA EDO GALERA

18. artikulua



AZKOITIKO UDALA
AYUNTAMIENTO DE AZKOITIA

Diru-laguntza emateko kontuan hartu diren baldintzen aldaketek (dirusarrerak, unitate onuraduna, errenta, eta abar), eta, edozein kasutan, beste entitate publiko edo pribatu batzuetatik konkurrentzian jasotako laguntzek, emakidaren erabakia aldatzea ekar dezakete.

19. artikulua

Ordenantzan jasotako baldintzak ez balira beteko, une hartatik aurrera diru-laguntza jasotzeko eskubidea galduko litzateke, eta bidegabekiz jasotako laguntza itzuli beharko litzateke. Diru-laguntza itzultzeko arrazoi izango dira:

- a) Diru-laguntza beharrezko baldintzak bete gabe jaso izana.
- b) Diru-laguntzaren helburua, osorik edo zati batean, ez betetzea.
- c) Diru-laguntzari eman zaion erabilera zuritzeko derrigortasuna ez betetzea edo behar den bezala ez betetzea.
- d) Finantzen kontrol eta frogatze-jarduerak oztopatzea, ezetza ematea, desenkusatzea edo erresistentzia jartzea; agiriak kontserbatzeko eta kontabilitate eta erregistratze aldetik dituzten betebeharrak ez betetzea; horien ondorioz emandako diru-laguntza zertan erabili den ziurtatzea oztopatzen bada, helburua betetzen ez bada edo helburu berarentzako bestelako diru-laguntza, diru-sarrera edo baliabideak baldin badaude.
- e) Ordenantza honetan diru-laguntzaren onuradunei ezarritako betebeharrak ez betetzea.

Itzuli beharreko diru-kopuruak eskubide publikoko diru-sarreratzat hartuko dira.

VII. ARGITARA EMATEA

20. artikulua.

38/2003 Legeak, azaroaren 17koak, 18. artikuluan, 887/2006 Errege Dekretuak, uztailaren 21ekoak, 30. artikuluan eta 19/2013 Legeak, abenduaren 9koak, 8. Artikuluan, ezartzen dutena kontuan izanda, Ordenantza honi jarraiki ematen diren laguntzak Udaleko iragarki-oholean eta webgunean argitaratuko dira, eta halaber gardentasuna eta informazio publikoaren eskuragarritasuna garantizatzeko ezarritako tresnetan. Gainera, diru-laguntzaren zenbatekoa, Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean ere argitaratuko da. Beti errespetatuko da datu pertsonalak babesteko legeak xedatutakoa, eta, horregatik, datu pertsonalak modu disoziatuan emango dira.

VIII. OINARRIEN INTERPRETAZIOA



21. artikulua.

Oinarri hauen interpretazioaren harira sor daitekeen edozein zalantzari buruz erabakitzea, diru-laguntza emateko ardura duen organo berari dagokio.

(Ordenantzaren testu bategina erantsi zaio irizpen honi)

BIGARRENA.- Aldaketa hau eta dagokion espedientea informazio publikoan jartzea hogeita hamar laneguneko epean, Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean argitaratzen den biharamunetik hasita, herritarrek aztertu eta erreklamazio edo iradokizunak aurkez ahal ditzaten.

HIRUGARRENA.- Erabaki hauek Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean, Udaletxeko iragarki taulan eta Azkoitiko Udalaren web orrian eta Gipuzkoako Atarian argitaratzea.

ERANSKINA

AZKOITIKO HERRIAN GAZTEEK ETXEBIZITZAK ALOKATZEKO DIRU-LAGUNTZAK EMATEA ARAUTUKO DITUEN ORDENANTZA ERREGULATZAILEA

ARRAZOIEN AZALPENA

Dagokigun Ordenantza honen xedea da Azkoitiko herrian etxebizitzaren alokairurako diru-laguntzak ematea arautuko duten oinarriak adostea.

Azken helburu bezala du:

- Bereziki pertsona gazteei laguntzea, heuren emantzipazio bidean eta helduen mundura sartzeko prozesuan.
- Modu orokorrean, Azkoitiko herrian alokairuko etxebizitza eskuratzea sustatzea.
- Arkitektura-oztopoak ezabatzeko indarrean dagoen araudiak ezarritako irisgarritasun-baldintzak betetzen dituzten alokairuko etxebizitzak eskuratzea sustatzea.

I. XEDEA

1. artikulua. Xedea.

Laguntza hauen xedea da eskaera egiten duten gazteen ohiko bizilekua izango den etxebizitzaren alokairua ordaintzen laguntzea, zati batean, bai dagoeneko etxebizitza errentan hartuta daukatenean eta baita deialdian eskaerak aurkezteko ezarritako epea amaitu eta hilabeteko epean etxebizitza errentan hartzeko konpromisoa hartzen dutenean ere. Gaztea esatean, 18 eta 35 urte bitarteko pertsona esan nahi da.

Etxebizitza partekatzen duten gazte guztiak izan ahal izango dira onuradun, baldin eta errentamendu-kontratua denek sinatzen badute banan-banan. Kasu horretan,



AZKOITIKO UDALA
AYUNTAMIENTO DE AZKOITIA

eskataile bakoitza bizikidetzaren unitate independentea dela ulertuko da, eta kontratua sinatu duten guztien artean hainbanatuta konputatuko da errenta.

Oinarri hauetan ezarritako baldintzen arabera tramitatu eta emango da diru-laguntza, eta onuradunak hamabi hilabetez gutxienez ordaindu beharreko alokairua ordaintzeko erabiliko da, baldintza horiek epealdi horretan zehar mantentzen baldin badira.

Araudi honetan jasotakoari jarraiki, alokairutik edo diruz lagundu daitezkeen kontzeptutik kanpo geldituko dira, garaje eta komunitate eta administrazioko gastuei dagozkienak, bai eta kontribuzio edo zerga kontzeptupean sor daitezkeenak ere, dagokion kontratuan berariaz sartuta egonda ere.

Alokairuko hileko kuotatik 30 euroko balio finko bat kenduko da, aurreko paragrafoan deskribatutako garaje edo komunitate gastuengatik, alokairu kontratuan sartuta badaude eta ez bada horietako bakoitzaren hileko kostuaren berariazko justifikaziorik aurkezten.

2. artikulua. Organo eskuduna.

Oinarri hauek onartzeko eskumena duen organoa Azkoitiko Udaleko Osoko Bilkura da, Toki Jardunbidearen Oinarriak arautzen dituen apirilaren 2ko 7/1985 Legearen 22.2.d) artikulua dioenaren arabera.

3. artikulua. Ezargarri den araudia

Diru-laguntzak ematea eta onuradunaren eta entitate emailearen arteko harreman juridikoa oinarri hauen arabera eta laguntza ematen den unean indarrean dagoen araudiaren arabera arautuko dira.

Oinarri hauetan ezarritakoaz gain, honako hauek arautuko dituzte diru-laguntzak:

- Diru-laguntzen 38/2003 Lege Orokorra, azaroaren 17koa.
- Diru-laguntzen Araudi Orokorra, 887/2006 Errege Dekretuak onartua, uztailaren 21ekoa.

4. artikulua. Pertsonak edo bizikidetzaren unitateen onuradunak.

Oinarri hauetan araututako laguntzen onuradun izan ahal izango dira, laguntzarako deialdia Gipuzkoako ALDIZKARI OFIZIALEAN argitaratzen den egunean eta diruz lagunduko den epealdian zehar, ondoko baldintzak betetzen dituzten pertsonak edo bizikidetzaren unitateak:

- a) 18 eta 35 urte bitarteko adina izatea eskaerak aurkezteko epea amaitzen den egunean.
- b) Eskataileetako edo Bizikidetzaren Unitatea osatzen duten kideetako batek ere ez izatea bere jabetzako etxebizitzaren bat, salbu eta herentzia edo dohaintza bidez eskuratutako jabetza osoko etxebizitza baten titularkide denean, eta kotitularitate-portzentajea %50etik **gorakoa ez** denean. Era berean, salbuetsita geratuko da



AZKOITIKO UDALA
AYUNTAMIENTO DE AZKOITIA

herentzia edo dohaintza bidez eskuratutako etxebizitza baten edo gehiagoren jabetza soila denean ere, kotitularitate-portzentajea %50etik gorakoa ez bada eta etxebizitzako partaidetzen balioa 75.000,00 euro baino gehiagokoa ez bada.

Hala ere, laguntza eskatu ahal izango dute etxebizitza baten jabe %50ean baino gehiagoan direnek, etxebizitza hori erabili ezin badute, ondoko kasu hauetan:

- Bananduta edo dibortziatuta daudenean. Kasu horretan, epai judiziala eta hitzarmen arau-emailea aurkeztu beharko dira, etxebizitzaren erabilera beste ezkontideari eman zaiola egiaztatzeko.

- Ohiko etxebizitzatik desahuziatu dutenean. Kasu horretan, desahuziatzea erabaki duen epaia aurkeztu beharko da.

- Indarkeria matxistako edo familia barneko indarkeriako kasu bat denean. Udaleko gizarte-zerbitzuek egiaztatu beharko dute egoera hori.

- Bere etxebizitza erabili ezin dutenean hondamendiren bat gertatu delako: uholdea, sutea, etab.

c) Diru-laguntzen onuradun diren Bizikidetzaren Unitateetan sartutako pertsona guztiak diru-laguntza jasoko duen etxebizitzan erroldatu beharko dira, alokairu kontratua sinatu ostean, eta kontratua indarrean dagoen bitartean, eta datu hau diru-laguntza jaso baino lehen egiaztatu beharko dute.

Halaber, kontratua hasi baino lehenagoko datarekin, kontratuaren titular ez diren pertsonak baleude etxebizitzan erroldatuta, kontratuaren titularrek erroldan baja eskaera egin beharko dute pertsona horientzat, diruz lagun daitekeen epearen barruan.

d) Gutxienez Bizikidetzaren Unitateko pertsona bat Azkoitiko herrian erroldatua egon izana, gutxienez 3 urteko etenik gabeko antzinatasunarekin, eskaera aurkeztu den unean, edo, behintzat, beste momentu batean, etenik gabe 5 urtez udalerrian erroldaturik egon izanak eskaera aurkezteko unean.

e) Bizikidetzaren Unitateko diru-sarreraren mugak, ondoko hauek izango dira:

- 1) Urteko dirusarrera gordinak gutxienez 3.000 €.koak izango dira.
- 2) Onuradun bakarra baldin bada, urteko dirusarrera gordinek ezingo dute gaititu 27.000 €.tako kopurua.
- 3) Bi onuradun edo gehiago izanez gero, urteko dirusarrera gordinek ezingo dute gaititu 34.000 €.tako kopurua.

f) Diru-sarreraren osaketari dagokionez, amaitutako azken zerga-ekitaldiko kapital errentetatik eratorritako errendimendu gordinen zenbatekoa ezin izango da urtean 601,10 eurotik gorakoa izan.

g) Bizikidetzaren Unitateko kide guztiak Azkoitiko Udaleko zerga, tasa, ariel eta zehapenen ordainketan egunera izan behar dituzte.



AZKOITIKO UDALA
AYUNTAMIENTO DE AZKOITIA

h) Onuradunaren eta errentatzailearen artean ezin izango da inolako familia-loturarik izan odolkidetasun edo ahaidetasuneko bigarren mailaraino.

i) Eskatzaileek justifikatu beharko dute Etxebiden izana emanda daudela edo inskripzio-eskaera aurkeztu dutela. Obligazio hori ez dute bete beharko Etxebiden inskribatzeko baldintzak betetzen ez dituztenek.

Edozein kasutan, onuraduntzat jotzeko, Diru-laguntzen 38/2003 Lege Orokorraren 13. artikuluan eta 887/2006 Errege Dekretuaren 18. artikulutik 29.era bitartekoetan, Administrazio Publikoek ematen dituzten diru-laguntzak arautzen dituztenetan, ezarritako baldintzak bete izana egiaztatu beharko da.

5. artikulua. Etxebizitzek bete beharreko baldintzak

1. Diruz lagunduko den etxebizitzak Azkoitiko udalerrian kokatuta egon beharko du eta dagokion bizigarritasun baimena izan beharko du.

2. Edonola ere, etxebizitzak gutxienez ondorengo bizigarritasun baldintzak bete beharko ditu:

- a) Erabiltzeko moduan dagoen sukaldea, elikatze-iturri elektriko edo gasezkoa duena, eta behar bezala hornitua.
- b) Dutxa edo bainuontzia duen bainugela.
- c) Erabiltzeko egoeran dagoen ur bero sistema, bainugelara eta sukaldera zerbitzuarekin.
- d) Erabiltzeko egoeran dagoen 220 volt-eko instalazio elektrikoa, dagokion buletinarekin.
- e) Iturriko ura izatea.
- f) Sare orokorrera isurketa duen saneamendua.
- g) Kalerako aireztatzea.
- h) Bizikidetzat unitateko bi pertsonako (gehenez) logela bat.

6. artikulua. Baztertzeak.

Ez dira diru-laguntzaren onuradun izango honako kasu hauetan sartzen diren eskaerak:

- a) Etxebizitzari dagokienez:
 11. Babes publikoko erregimenen batean sartutako etxebizitzak, bai ekimen publikokoak, bai pribatukoak.
 12. Berrakurak.
 13. Logelen alokairuak (logela eskubidea).
 14. Etxebizitza gisa erabilitako lokalak.
 15. Bizigune programaren barruan dauden alokairu etxebizitzak.



AZKOITIKO UDALA
AYUNTAMIENTO DE AZKOITIA

- b) Baztertuta geldituko dira hilean 500,00 €ko zenbatekoa (eranskinak barne) gainditzen duten alokairuko etxebizitzak.
- c) Ez da onartuko urte bete baino iraupen txikiagoa duen kontraturik.

II. ESKAERAK

7. artikulua. Onuradunaren betebeharrak.

Diru-laguntzetarako Lege Orokorraren 14. artikuluan jasoak datozenaz gain, onuradunak honakoak ere bete beharko ditu:

- a) Ematearen oinarrian den helburu zehatza betetzeko erabiltzea diru-laguntza.
- b) Eskatzen zaien informazio osagarri guztia aurkeztu beharko diote Azkoitiko Udalari.
- c) Diru-laguntza ematerakoan kontutan izandako edozein gorabehera –hala objektiboa, nola subjektiboa– aldatzen bada, horren berri eman.
- d) Oinarri hauetako 4. artikuluko c) apartatuan erroldatzeari buruz ezarritako baldintzak betetzeko egin beharreko gestioak egitea.
- e) Ordenantza honetan xedatzen diren baldintzak betetzen direla egiaztatzeko udalak sustaturiko jarduketa ikuskatzailea onartzea, dagokion etxean sartzearena barne.

8. artikulua. Eskabideak aurkeztea: epea eta modua.

Laguntza hauek jaso nahi dituzten pertsonak, deialdian jasotakoari jarraiki, Azkoitiko Udalaren bulegoetan (Herriko Plaza z/g, 20720 Azkoitia) eskuragarri jarriko den eskabide eredu ofiziala aurkeztu beharko dute. Azkoitiko Udalak Azkoitia Lantzen S.A. udal sozietateari gomendatu ahal izango dio eskaerak hartzeko eta tramitatzeko lana, baina beretzat gordeko du eskaerak ebazteko ahalmena.

8.1 Dokumentazioa:

Laguntzen deialdian onartzen den ereduaren arabera aurkeztu beharko dira eskaerak.

Oinarri orokorren 5. artikuluan adierazitako dokumentazioaz gain, diru-laguntza lerro honetarako eskatzaileak honako agiriak ere aurkeztu beharko ditu:

Orokorrean, kasu guztietarako:

1. Eskabide-orri ofiziala, behar bezala beteta eta sinatuta.
2. Laguntza eskatzen duen pertsona bakoitzaren Nortasun Agiriaren edo egoitza-txartelaren konpultsatutako fotokopia.
Adin txikikorik balego, Familia Liburuaren fotokopia edo jaiotza-ziurtagiria ere aurkeztu beharko da. Dokumentazio hau beharrezkoa izango da, kasu guztietan, senidetasuna egiaztatzeko, baldin eta ondorengotza alegatu bada.



AZKOITIKO UDALA
AYUNTAMIENTO DE AZKOITIA

3. *Bizikidetzaren unitatea osatzen duten kideen zerrenda, Udalak egiazta dezan Biztanleen Udal Erroldan.*

4. Etxebizitzaren alokairu-kontratuaren kopia, kontratua dagoeneko indarrean badago eta kontuan izanda **12 hilabeteko iraupena izan beharko duela gutxienez**; edo, bestela, kontratua hilabeteko epean sinatzeko konpromisoa, eskaerak aurkezteko epea amaitzen denetik kontatuta.

5. Eskatzailearen kontu Korrontearen titularitatea egiaztatzen duen agiria.

6. Estatu mailan etxebizitzaren jabe ez izatearen ziurtagiria, laguntza eskatzen dutenena eta bizikidetzaren unitateko 18 urtetik gorako kide guztiena, jabetza erregistroak igorria, laguntza eskaera eman baino gehienez 15 egun lehenagokoa.

Etxebizitza baten titular-kide izanez gero, aurkeztu beharreko agiriak:

- Herentzia kasuan, herentziaren onarpen-agiria eta etxebizitza-partaidetzaren eskritura.
- Dohaintza-kasuan, dohaintza-eskritura.
- Bi kasuetan, partaidetza saldu izan balitz: eskualdatzearen eskritura.

7. Bizikidetzaren Unitateko kide guztien ekitaldiko (eskaera hau aurkezteko unean betetako azken zerga-ekitaldia) diru-sarreraren egiaztagiria: pentsioak, nominak edo beste diru-sarreraren agiriak (dagokion erakundeak igorrita).

A edo B kasuen arabera:

A) PFEZ aitortzeko derrigortasuna duenak edo dagoeneko aitortu duenak, honakoak aurkeztu beharko ditu:

- — Pertsona Fisikoen Errentaren gaineko Zerga dela eta, betetako azken zerga-ekitaldian aurkeztutako Aitorpenaren fotokopia eta horren jatorrizkoa, biak erkatzeko, eskaera hau aurkezteko unean.
- — Gainera zergapekoak ez diren prestazioak jasoko balira, prestazio horien ziurtagiria.

B) PFEZ aitortzeko derrigortasunik ez duenak honakoak eman beharko ditu:

- — Kasu guztietan:
 - — Ekitaldi horretan (eskaera hau aurkezteko unean betetako azken zerga-ekitaldia) PFEZ aitortzea aurkezteko derrigortasunik ez izatea egiaztatzen duen ziurtagiria, Foru Ogasunak emana.
 - — Lan-bizitzari buruzko ziurtagiria, Gizarte Segurantzako Diruzaintza Nagusiak igorria.
- Gainera, hala behar denean:



AZKOITIKO UDALA
AYUNTAMIENTO DE AZKOITIA

- — Besteren konturako langileen kasuan, kontzeptu guztiengatik jasotako diru-sarrera gordin guztiei buruzko dokumentua, ekitaldi horri buruzkoa eta enpresak edo enplegu-emaileak emandakoa.
 - — Pentsiodunen edo bekak, prestazioak edo subsidioak jasotzen dituztenen kasuan (Gizarte Ongizateko laguntzak barne), ekitaldi honetako laguntza horien ziurtagiria.
8. Administrazioarekin Gizarte Segurantzako betebeharrak eta Zerga obligazioak betetzerakoan egunera dagoela egiaztatzea.
9. Zinpeko aitordena, beste diru-sarrera batzuk (zenbatekoa adieraziz) badaudela eta/edo beste erakundeetan diru-laguntza eskatu dutela adierazten duena.
- — Lanbidek igorritako ziurtagiria non zehazten den Etxebizitzarako Prestazio Osagarriaren (EPO) onuraduna den hala ez.
 - — Hala badagokio, onuradunak Azkoitiko gizarte larrialdietako diru-laguntza eskatu duela adierazten duen aitordena.
10. Orokorrean edonolako diru-laguntzak jasotzea eragozten duen inolako egoeratan ez dagoela eta oinarri hauen 4. eta 5. artikuluetan zehaztutako baldintzak betetzen dituela egiaztatzen duen zinpeko aitordena.
Adierazpen horrek honakoak adieraziko ditu: alokairuko etxebizitzan bizi d(ir)en edo biziko d(ir)en pertsona(k), deialdiaren baldintza zehatzak betetzen dituztenak.
11. Banantzea edo dibortzioa denean, hitzarmen arau-emailea eta epai judiziala.
12. Desahuzioa denean, desahuzioa erabaki duen epaia
13. %65eko balio-urritasuna edo handiagoa denean, Foru Aldundiak desgaitasuna egiaztatzeko emandako ziurtagiria.
14. Familia barneko indarkeria denean, Azkoitiko Udaleko gizarte-zerbitzuen txostena.
15. Genero-indarkeria denean, Azkoitiko Udaleko gizarte-zerbitzuen txostena.
16. Hondamendia denean, Azkoitiko Udaleko gizarte-zerbitzuek frogagiri gisa emandako txostena.
17. Diru-laguntza emateko bete-beharrak kontuan izanik, baliagarria izan daitekeen beste edozein agiri.

Eskatzaileek berariazko baimena eman beharko diete Azkoitiko Udaleko udal zerbitzuei, eskumena duten erakundeek laguntzen onuradun izateko bete behar diren baldintza guztiak betetzeko datuak bildu ditzaten, Datu Pertsonalak Babesteko



AZKOITIKO UDALA
AYUNTAMIENTO DE AZKOITIA

abenduaren 13ko 15/1999 Lege Organikoko 6. artikuluan ezarritakoa betez. Erroldako datuak Udalak jasoko ditu zuzenean.

8.2 Eskabideak aurkezteko epea.

Eskabideak, urtero Gipuzkoako ALDIZKARI OFIZIALEAN argitaratuko den deialdian adierazitako epealdian aurkeztuko dira.

Diru-laguntza justifikatzeko deialdian ezarritako epea igaro eta aurreko apartatuan adierazitako dokumentazioa ez aurkezteak, Diru-laguntzen 38/2003 Lege Orokorrak, azaroaren 17koak, 37. artikuluan aurreikusitako ondorioak izango ditu.

9. artikulua. Akatsak zuzentzea

Eskabideak edo harekin batera aurkeztu beharreko dokumentazioak akatsen bat baldin badu edo osatu gabe baldin badago, interesatuei hamar laneguneko epea emango zaie, jakinarazpena jaso eta hurrengo egunetik aurrera, antzemandako hutsak konpon ditzaten.

Emandako epea amaitu eta aurkitutako akatsak konpondu ezean, eskaera bertan behera utzi dutela iritziko da, prozedura artxibatuz, 30/1992 Legeko 71. artikuluan xedatutakoarekin bat ebazpena eman eta gero.

III. DIRU-LAGUNTZAK EMATEA

10. artikulua. Diru-laguntzen zenbatekoa

Diru-laguntzaren zenbatekoa errentaren arabera finkatuko da: hileko errenta konputagarriaren portzentaje bat izango da, eskaera bakoitzeko hileko hainbat euroko gehienezko muga izango du, eta gehienez 12 hilabeterako emango da, diru-sarreraren arabera.

Etxebizitza Azkoitiko Hirigune Historikoan –17/2005 Dekretuak, urtarrilaren 25ekoak, Monumentu Multzo deklaratuari badago, diru-laguntzaren zenbatekoa izango da hileko errenta konputagarriaren portzentaje bat, gehi 50 euro, betiere eskaera bakoitzeko hileko hainbat euroko gehienezko mugarekin, gehienez 12 hilabeteko epealdirako, diru-sarreraren arabera. Eta %65eko desgaitasuna edo handiagoa izanez gero, 50 euro gehiagoko diru-laguntza emango da, hileko hainbat euroko mugarekin, erantsita ematen den taularen arabera.

Diru-laguntzen taula, bizikidetzaren unitatea pertsona bakarrak osatzen duenean:

Diru sarrerak eurotan	Diru laguntzaren %	Gehienezko diru-laguntza	Gehienezko diru-laguntza Monumentu Multzoan	Gehienezko diru-laguntza %65eko edo gehiagoko	Gehienezko diru-laguntza %65eko edo gehiagoko



AZKOITIKO UDALA
AYUNTAMIENTO DE AZKOITIA

					desgaitasunarekin, Monumentu Multzotik kanpora	desgaitasunarekin, Monumentu Multzoaren barruan
25.000,01 eta 27.000,00 € bitartean	% 15	75 €	125 €	125 €	125 €	175 €
23.000,01 eta 25.000,00 € bitartean	% 20	100 €	150 €	150 €	150 €	200 €
21.000,01 eta 23.000,00 € bitartean	% 30	150 €	200 €	200 €	200 €	250 €
19.000,01 eta 21.000,00 € bitartean	% 40	200 €	250 €	250 €	250 €	300 €
19.000,00 € arte	% 50	250 €	300 €	300 €	300 €	350 €

Diru-laguntzen taula, bizikidetzaren unitatea bi pertsonak edo gehiagok osatzen dutenean:

Diru sarrerak eurotan	Diru laguntzaren %	Gehienezko diru-laguntza	Gehienezko diru-laguntza Monumento Multzoan	Gehienezko diru-laguntza %65eko edo gehiagoko desgaitasunarekin, Monumentu Multzotik kanpora	Gehienezko diru-laguntza %65eko edo gehiagoko desgaitasunarekin, Monumentu Multzoaren barruan
32.000,01 eta 34.000,00 € bitartean	% 15	75 €	125 €	125 €	175 €
30.000,01 eta 32.000,00 € bitartean	% 20	100 €	150 €	150 €	200 €
28.000,01 eta 30.000,00 € bitartean	% 30	150 €	200 €	200 €	250 €
26.000,01 eta 28.000,00 € bitartean	% 40	200 €	250 €	250 €	300 €
26.000,00 € arte	% 50	250 €	300 €	300 €	350 €



AZKOITIKO UDALA
AYUNTAMIENTO DE AZKOITIA

Diruz lagundu daitekeen zenbatekoa kuantifikatzeko, kontutan hartuko da oinarri hauetako 1. artikuluan bazterketei buruz ezarritakoa. Era berean, errenta konputagarria ere artikulua horretan aurreikusitakoaren arabera kalkulatu da, alokairua partekatzen denean aplikatzekoak diren xedapenak kontuan izanda.

Banatzeko diru-laguntzen zenbateko osoak dagokion aurrekontuko partidan esleitutako zenbatekoa gainditzen badu, zenbateko hori diru-laguntza guztien artean proportzionalki banatuko da.

11. artikulua. Diru-laguntzaren ordainketa.

Diru-laguntza bizikidetza-unitate bakoitzeko ematen da. Bizikidetza-unitatea pertsona bakarrak edo gehiagok osatua izan daiteke.

Diru-laguntza zatika ordainduko da, hiru hilabetetik behin, eta justifikatu egin beharko da hil horietan alokairua ordaindu izana:

- Lehenengo ordainketa deialdia ebatzi ondoren egingo da. Eskaerak aurkezteko epea amaitzen den egunetik hilabete eta erdi igaro aurretik ebatziko dira diru-laguntzak.
- Alokairu-kontratua **eskaerak aurkezteko epea amaitu ondoren sinatu bada, baina betiere diru-laguntzak emateko ebazpena atera aurretik**, etxebizitzaren errentamendu-kontratuaren originala eta kopia aurkeztu beharko dira. Kontratua **eskaerak aurkezteko epea amaitu eta hilabete natural 1en barruan** sinatua izango da, **Azkoitiko udal-mugar**tean.
- Hurrengo ordainketei dagokienez, zatika egingo dira, hiru hilabetetik behin, hiruhilekoa amaitzean, eta justifikatu egin beharko da hil horietan alokairua ordaindu izana. Azkoitiko Udalaren bulegoetan edo, hala badagokio, Azkoitia Lantzen S.A.ren bulegoetan entregatu beharko dira alokairua ordaindu izanaren agiriak, hiruhileko natural bakoitzaren ondorengo lehen 15 egunen barruan.

Alokairu partekatua denean, bizikidetza-unitate bakoitzari emateko laguntza kalkulatzeko, etxebizitza osoaren hileko errenta zatituko da kontratuko titularren kopuruaren artean.

Etxebizitza bakoitzeko eskatzaile bi edo gehiago daudenean eta laguntzarako eskubidea dutenean, ordainketa bankuko kontu bakarrean egingo da denentzat.

12. . artikulua. Agiri justifikagarriak



AZKOITIKO UDALA
AYUNTAMIENTO DE AZKOITIA

Diru-laguntza emandakoan, bigarren hiruhilekoari eta hurrengoei dagokien ordainketa egin aurretik, onuradunak:

- a) Alokairu kontratuaren baitan egindako hileko ordainketa agiriak aurkeztu beharko ditu.
- b) Onuradunaren egoeran aldaketaren bat izan bada, oinarri hauetan ezarritakoaren arabera dokumentazio berria aurkeztera behartzen duena, dokumentazio hori aurkeztu beharko du.

Gastuak egiaztatzeko faktura, edo merkataritzako trafiko juridikoan froga balio bera duten edo administrazioaren aurrean eraginkortasuna duten bestelako agirien bidez, bai jatorrizko agiriak, bai zigilatutako fotokopiak aurkeztuko dira.

13. artikulua. Beste diru-laguntzekin bateragarritasuna.

Oinarri hauen arabera emandako diru-laguntzak helburu berarekin ematen diren beste diru-laguntzekin bateragarri ezinak izango dira.

Laguntza horien eskatzaile gisa, berariaz baztertuta daude Bizigune Programaren bitartez etxebizitza alokatuta duten gazteak.

Salbuespenak:

Lehenengo paragrafoan xedatutakoa ukatu gabe, alokairua ordaintzeko laguntza hauek osagarritzat joko dira 10. artikuluan ezarritako gehieneko laguntza-mugara iritsi arte, ondorengo kasu hauetan:

- Azkoitiko Udalak gizarte-bazterkeriako egoeran eta premia larrian daudenei laguntzeko ematen dituen diru-laguntza indibidualen onuradun izan daitezkeen gazteak direnean,
- Eusko Jaurlaritzak genero-indarkeriaren biktima diren emakumeei ematen dizkien laguntzak, 1/2004 Lege Organikoak, abenduaren 28koak, 27. artikuluan aurreikusitakoak, jasotzen dituzten gazteak direnean

Bi kasuetan, beharrezkoa izango da gizarte-zerbitzuen baiezeko txostena.

Edonola ere, eskatzaileek beren eskubidea baliatu beharko dute, eta dagozkien laguntzak administrazio eskudunari eskatu. Bestela, ezingo dute eskuratu oinarri hauetan ezarritako alokairu-laguntza osagarria.



14. artikulua. Finantzazioa.

Alokairurako diru-laguntzak finantzatzeko diru-baliabideak Azkoitiko Udalaren Aurrekontu Orokorretan helburu horretarako ezarritako aurrekontu-kredituak erabiliko dira. Emandako laguntza guztien batura ezingo da izan horretarako onartutako aurrekontu-partida baino handiagoa.

IV. PROZEDURA

14. artikulua. Laguntzak emateko irizpideak.

Diru-laguntzak emateko oinarrizko irizpideak oinarri hauetan xedatutakoak dira. Ezarritako baldintzak eta bete beharrak betetzen direla egiaztatu ondoren, dagozkion diru-laguntzak ordenantza honetan ezarritako baldintzetan emango dira. Aurkezten diren eskaera guztiak batuta ateratzen den zenbatekoa handiagoa bada horretarako izendatutako aurrekontu-partidan kontsignatutako kopurua baino, Udalak kopuru hori hainbanatu ahal izango du eskaera guztien artean.

16. artikulua. Prozedura.

Instrukzioa eta proposamena.

1. Udalaren barruan dagokion Sailak edo, kasua bada, Azkoitia Lantzen S.A.k egingo ditu Ordenantza honetan aurreikusitako laguntzen espedienteak instruitzeko lanak. Zerbitzu tekniko eskudunek eskaerak aztertu eta ebaluatuko dituzte, eta ebazpen-proposamena egingo dute. Diru-laguntzei behin betiko onarpena emateko organo eskuduna Azkoitiko Alkate-Udalburua izango da.
2. Diru-laguntzen behin-behineko ebazpen proposamena, Alkatearen Probidentzia moduan, interesatuei jakinaraziko zaie, Azkoitiko Udaleko iragarki taularen edota web orriaren bidez, eta egoki iritzitako alegazioak egiteko hamar eguneko epea emango zaie.
3. Hala badagokio, aurkeztutako alegazioak aztertu ondoren, behin betiko ebazpenaren proposamena egingo da; eskaerak aurkeztutako pertsonen zerrenda azaltzen delarik, proposatutako diru-laguntza eta zenbatekoa proposatuz, diru kopurua diru laguntza jasotzeko baldintzak betetzen dituzten eskari guztien artean banatuko da, behin-behineko zerrenden ebazpenaren aurka aurkeztutako alegazioak onartzuz gero, behin betiko zerrendetako diru kopuruetan aldaketak egon daitezke.

Ebazpena.



AZKOITIKO UDALA
AYUNTAMIENTO DE AZKOITIA

1. Behin betiko proposamen ebazpena onetsi ondoren, Alkatetzaren dekretuak amaiera emango dio prozedurari, oinarri hauetan ezarritakoaren arabera arrazoitutako ebazpen baten bidez, eta prozeduran egiaztatuta utzi beharko dira ebazpenaren oinarriak.
2. Ebazpenean berariaz jakinaraziko dira ezetsitako eskaerak, halakorik balego.
3. Ebazpena erabaki eta jakinarazteko gehienezko epea hilabete eta erdikoa izango da eskaerak aurkezteko epea amaitzen den egunetik. Aipatutako epean ebazpenik ez balego, aurkeztutako eskaera atzera bota dela adierazi nahiko du.
4. Ebazpenean diru-laguntzaren zenbatekoa eta ordainketa-era zehaztuko dira.

V. DIRU-LAGUNTZAREN KONTROLA

17. artikulua.

Dirulaguntzen onuradunek Azkoitiko udalak eskaturiko dokumentazioa aurkeztu beharko dute, beti ere Ordenantza honetan xedaturiko baldintzak betetzen direla egiaztatzeko helburuarekin.

Halaber, udalak beharrezkoak diren ikuskaritza-eginbideak garatu ahal izango ditu, bai udalean bertan dagoen informazioa aztertzeko, baita hirugarrenek (beste administrazioek, konpainia hornitzaileek, posta zerbitzuek, etab.) eduki dezaketen informazioa eskatzeko, beti ere Ordenantza honetan araututakoa betetzen dela egiaztatzeko helburu soilarekin.

Halaber, udaleko zerbitzuek, etxebizitza ikuskatu ahal izango dute, oinarrietan adierazitako baldintzak betetzen direla egiaztatzeko helburu bakarrarekin.

Dirulaguntzaren onuradunak udalaren jarduketa ikuskatzailea oztopatuko balu, laguntza jasotzeko eskubidea galduko du.

VI. DIRU-LAGUNTZAREN ALDAKETA EDO GALERA

18. artikulua

Diru-laguntza emateko kontuan hartu diren baldintzen aldaketek (dirusarrerak, unitate onuraduna, errenta, eta abar), eta, edozein kasutan, beste entitate publiko edo pribatu batzuetatik konkurrentzian jasotako laguntzek, emakidaren erabakia aldatzea ekar dezakete.



19. artikulua

Ordenantzan jasotako baldintzak ez balira beteko, une hartatik aurrera diru-laguntza jasotzeko eskubidea galduko litzateke, eta bidegabekiz jasotako laguntza itzuli beharko litzateke. Diru-laguntza itzultzeko arrazoi izango dira:

- f) Diru-laguntza beharrezko baldintzak bete gabe jaso izana.
- g) Diru-laguntzaren helburua, osorik edo zati batean, ez betetzea.
- h) Diru-laguntzari eman zaion erabilera zurrizko derrigortasuna ez betetzea edo behar den bezala ez betetzea.
- i) Finantzen kontrol eta frogatze-jarduerak oztopatzea, ezetza ematea, desenkusatzea edo erresistentzia jartzea; agiriak kontserbatzeko eta kontabilitate eta erregistratze aldetik dituzten betebeharrak ez betetzea; horien ondorioz emandako diru-laguntza zertan erabili den ziurtatzea oztopatzen bada, helburua betetzen ez bada edo helburu berarentzako bestelako diru-laguntza, diru-sarrera edo baliabideak baldin badaude.
- j) Ordenantza honetan diru-laguntzaren onuradunei ezarritako betebeharrak ez betetzea.

Itzuli beharreko diru-kopuruak eskubide publikoko diru-sarreratzat hartuko dira.

VII. ARGITARA EMATEA

20. artikulua.

38/2003 Legeak, azaroaren 17koak, 18. artikuluan, 887/2006 Errege Dekretuak, uztailaren 21ekoak, 30. artikuluan eta 19/2013 Legeak, abenduaren 9koak, 8. Artikuluan, ezartzen dutena kontuan izanda, Ordenantza honi jarraiki ematen diren laguntzak Udaleko iragarki-oholean eta webgunean argitaratuko dira, eta halaber gardentasuna eta informazio publikoaren eskuragarritasuna garantizatzeko ezarritako tresnetan. Gainera, diru-laguntzaren zenbatekoa, Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean ere argitaratuko da. Beti errespetatuko da datu pertsonalak babesteko legeak xedatutakoa, eta, horregatik, datu pertsonalak modu disoziatuan emango dira.

VIII. OINARRIEN INTERPRETAZIOA

21. artikulua.

Oinarri hauen interpretazioaren harira sor daitekeen edozein zalantzari buruz erabakitzea, diru-laguntza emateko ardura duen organo berari dagokio.



AZKOITIKO UDALA
AYUNTAMIENTO DE AZKOITIA

Lehen xedapen gehigarria.

Araudi honek indarrean jarraituko du aldatu edo indargabetu arte.

Azken xedapena

Araudi hau indarrean sartuko da Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean argitaratu eta hurrengo egunera.

Azkoitian, 2017ko otsailaren 17an

Idazkariak



AZKOITIKO UDALA
AYUNTAMIENTO DE AZKOITIA

I ERANSKINA

GAZTEENTZAKO ETXEBIZITZAK ALOKATZEKO DIRULAGUNTZA ESKARIA

ESKATZAILEA				
Izen-deiturak	NAN			
Helbidea	Zbkia.	Solairua	Atea	Herria: AZKOITIA
Telefonoa	Mugikorra	e-mail		
ETXEBIZITZA UNITATEKO GAINERAKO KIDEAK				
Izen-deiturak				NAN
Izen-deiturak				NAN
Izen-deiturak				NAN
Izen-deiturak				NAN
ALOKAIRU KONTRATUA				
<input type="checkbox"/> BAI	Kontratuaren sinadura data:		Kontratuaren baliozko data:	
<input type="checkbox"/> EZ	2017ko ekainaren 30 baino lehen alokairu kontratu bat sinatzeko konpromezua hartzen dute.			

DIRULAGUNTZA eskatzen dut gazteentzako etxebizitza alokatzeko, beti ere, deialdi hau arautzen duten oinarriekin bat etorritz.

Azpian sinatzen dutenek honako hau adierazten dute:

- 4) Eskarian bertan, bai eskariarekin batera aurkeztutako datu guztiak benetakoak dira.
- 5) Etxebizitzan bizi diren pertsona GUZTIEN berri eman dute.
- 6) Kontratuaren titularkide guztiak, edo Bizikidetzaren Unitateko kide guztiak, etxebizitzan erroldatu beharko dira. Kontratua hasi baino lehenagoko datarekin, titularrak ez diren pertsonak etxebizitzan erroldatuta baleude, kontratuaren titularrak eroldako baja eskaera egin beharko dute pertsona horientzat, diruz lagundu daitekeen epearen barruan.
- 7) Etxebizitzan bizi direnak ez dute errentatzailearekin bigarren mailara arteko odoleko loturarik ezta kideetasunik.
- 8) Etxebizitzak oinarrietan aipatzen diren bizigarritasun baldintzak betetzen ditu.
- 9) Ez zaie laguntzarik eman diru-laguntza kontzeptu beragatik, edo emandako laguntzen zenbatekoak erakusten dituzten agiriak aurkezten dira:

Laguntzak jasoz gero, zehaztu laguntza horien mota eta zenbatekoa:

- | | |
|---|----------------------|
| <input type="checkbox"/> Emantzipazioko Oinarrizko Errenta | Hileroko zenbatekoa: |
| _____ | |
| <input type="checkbox"/> Diru-laguntza Kontzeptu beragatik Premia Sozialeko laguntzak | Hileroko zenbatekoa: |
| _____ | |
| <input type="checkbox"/> Beste laguntza batzuk: _____ | Hileroko zenbatekoa: |
| _____ | |

Era berean, udal zerbitzuei baimena ematen zaie Zerga Administrazioetik behar dituzten datuak jasotzeko, horrela beraien diru-sarrera garbiak zehazteko eta baldintza ekonomikoak betetzeko, diru-laguntza hauen ondorioetarako. Baimenik eman ezean, interesdunek emango dute behar den dokumentazioa, beraien baliabideak erabiliz.

OSO GARRANTZITSUA: ETXEBIZITZA UNITATEKO 18 URTETIK GORAKO KIDE GUZTIAK ESKABIDE HAU SINATU BEHAR DUTE



AZKOITIKO UDALA
AYUNTAMIENTO DE AZKOITIA

Iz.: <input type="checkbox"/> Baimena ematen dut <input type="checkbox"/> Ez dut baimenik ematen	Iz.: <input type="checkbox"/> Baimena ematen dut <input type="checkbox"/> Ez dut baimenik ematen	Iz.: <input type="checkbox"/> Baimena ematen dut <input type="checkbox"/> Ez dut baimenik ematen
Iz.: <input type="checkbox"/> Baimena ematen dut <input type="checkbox"/> Ez dut baimenik ematen	Iz.: <input type="checkbox"/> Baimena ematen dut <input type="checkbox"/> Ez dut baimenik ematen	Iz.: <input type="checkbox"/> Baimena ematen dut <input type="checkbox"/> Ez dut baimenik ematen

LEGEZKO OHARRA:

Eman dizkiguzun datu pertsonalak Azkoitiko Udalaren ardurapeko fitxategian landu eta sartuko dira. Datu Pertsonalak babesteari buruzko abenduaren 13ko 15/1999 Lege Organikoko 15 eta 16 artikuluetan xedatutakoaren arabera, datuak eskuratu, zezendu, ezeztu eta horiei aurka egiteko eskubideak erabili ahalko dituzula jakinarazi nahi dizugu. Horretarako, hona jo beharko duzu: Herriko Plaza z/g – 20720 AZKOITIA (GIPUZKOA).

